

DIRU-SARRERA TXIKIAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO AURREZKIA

Aurreztea zaila izan daiteke diru gutxi irabazten denean, baina, aholku sinple batzuei jarraituz gero, lortu ahal izango duzu.

Jarraian, aurrezteko teknika sinple batzuk azalduko dizkizugu.

1. % 10eko araua

Teknika hau oso erraza da ulertzeko eta martxan jartzeko.

Hau egin behar duzu:

hilero, zure nomina jasotzen duzunean, bereizi % 10 aurrezteko.

Ezin bazara % 10era iritsi, aurreztu ahal duzun kantitatea, nahiz eta txikia izan.

Adibidez:

Hilean 700 euro irabazten badituzu, % 10 70 euro dira. 70 euro horiek hilaren hasieran bereiz ditzakezu eta aurrezki kontu batean gorde.

Ezin baduzu zenbateko hori aurreztu, 40 euro edo 20 euro gorde ditzakezu.

Beti ondo doakizun zenbatekoa.

Garrantzitsuena da hastea eta hilero egitea.

2. Aurrezpen automatikoa

Zure bankuko aplikazioaren bidez,
agindua eman dezakezu egun jakin batean
dirua kontu batetik bestera mugitzeko.

Astero edo hilean behin egin dezakezu.

Egun jakin bat aukeratu,
aurreztu nahi duzun diru-kopurua hautatu
eta zure aurrezki-kontura intsuldatzeko agindua eman,
hori da egin behar duzun guztia.

Nahi duzunean eten dezakezu.

Abantailak:

- Ez duzu inoiz ahaztuko,
automatikoki egingo baita.
- Ez duzu diru hori gastatuko
beharrezkoak ez diren gauzetan.

3. Helburuen araberako aurrezkia

Teknika hau helburu argi bat duzunean erabiltzen ohi da, hau da, diru-kopuru bat aurreztu behar duzunean denbora jakin batean.

Adibidez, auto bat erosi, bidaia bat egin edo etxea berritu nahi baduzu.

Badakizu zenbat diru behar duzun eta zenbat denbora duzun aurrezteko.

Hori lortzeko, zenbateko finko bat aurreztu dezakezu astero edo hilero.

Gainera, zure helburura nola hurbiltzen zaren ikusteak aurrezten jarraitzera motibatuko zaitu.

Adibidez:

1.800 euroko bidaia ordaindu behar duzu eta 12 hilabete dituzu aurrezteko.

Orduan, 150 euro aurreztu beharko dituzu hilero.

4. Gastuak biribiltzea

Praktika hau oso erabilgarria da eta dirua aurrezten lagunduko dizu, konturatu gabe.

Aplikazio batzuek dirua aurrezten laguntzen dizute. Erosketa bat egiten duzun bakoitzean, aplikazioak prezioa biribildu egingo du, eta aldea automatikoki gordeko du aurrezki kontu batean.

Adibidez:

3,50 euro balio duen zerbait erosiz gero, aplikazioak 4 eurora biribilduko du.

0,50 euroko aldea zuzenean zure aurrezki kontuan gordeko da.

Horrela, zure ordainketa eta gastu guztien kopuru txikiak pilatzen joaten zara.

5. Gastu txikiak berrikustea eta murriztea

Garrantzitsua da zure eguneroko gastuak zein diren jakitea eta beharrezkoak direnak eta ez direnak erabakitzea.

Adibidez:

Zenbat kafe hartzen dituzu egunean?

Beharrezkoa al da hiru kafe hartzea?

Bakar bat har zenezake?

Egunero gosaria erosi behar al duzu?

Etxetik eraman zenezake?

Beharrezkoak ez diren gastuak identifikatzen dituzunean, saihestu itzazu eta gorde diru hori zure aurrezki-kontuan.

Pixkanaka asko aurreztu ahal izango duzu.

6. Aukerako aurrezkia

Batzuetan, espero ez zenuen diru-sarrera bat jasotzen duzu, hala nola, opari bat, aparteko orduen ordainketa edo aldi baterako lana.

Diru hori jasotzen duzunean, gorde berehala zure aurrezki kontuan.

Horrela, aurreztu ahal izango duzu zure ohiko aurrekontutik dirurik kendu gabe.



Gogoan izan:

Ez dio axola zenbat diru aurrezten duzun.
Garrantzitsuena da konstantea izatea eta hileroko zenbateko bat zure aurrezki kontuan gordetzea.